

Lauron, 2025eko urriaren 27an

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUARI LAGUNTZA **Malnutrizioan bizi diren gure inguruko pertsonei laguntzea**

Gure ikasleak pertsona libre, erantzule, konpetente, tolerante eta solidarioak izan daitezten, eta euren inguru eta munduaren hobekuntzan parte hartzeko prest egon daitezten azalduta dugu Ikastolako Xedean. Ikastolan, duela urte batzuk, Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin (BEB) parte hartzen dugu helburu horiek lantzen, adibidez, urtero elikagaien bilketa Ikastolan burutuz.

Hala ere, azken boladan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak atenditzen duen pertsona kopurua asko handitu da eta biltegietan dituzten izakinak bukatzen ari zaizkie. Hau dela eta, BEBk supermerkatuetan antolatutako **Azaroako Elikagaien Bilketa Nagusian laguntzeko bolondresak** behar dituelako deialdia egiten dugu.

Bizkaiko Elikagaien Bankuak supermerkatuetan antolatzen duen Azaroko Elikagaien Bilketa Nagusian familien, irakasleen eta Batxilergoko ikasleen parte-hartzea bultzatu nahi dugu. Bilketa Nagusi hau Eroski eta BM supermerkatuetan izango da azaroaren 7an eta 8an.

Ekimen hau Lauro Ikastolako 2030 Agenda-planean txertatuta dago **Garapen Jasangarrirako 2. Helburuan: GOSERIK EZIZATEA**. Ikastolatik, supermerkatuetan egingo den bilketa lan hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Supermerkatuetako bilketan bolondres izan nahi baduzue, pertsonalki ado taldeka parte hartuz, jar zaitezte kontaktuan Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin:

- Posta elektronikoz mezu bat bidaliz helbide honetara: colectas@bancali-biz.org zure izen-abizenak, telefono zenbakia eta zein herritan lagundu nahi duzun adieraziz.
- Telefono hauetara deituz: 944 499 258 / 946 053 779 (8:30etatik 12:30etara) 747 454 396 (8:30etatik 18:30etara).

Bolondresa izateko informazioaren eta egin beharreko lanaren berri emango dizugu.

Informazio gehiago: <https://www.bancali-biz.org/>

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Adeitasunez,

Idoia Iruretagoiena
Zuzendari Gerentea



Jonan Gomez
2030 Agendako arduraduna

